


Kirol albiste ugari ez ohiko denboraldian

COVID-19ak kirol denboraldia hankaz gora jarri zuen arren, geroz eta jarduera gehiago jarri dira martxan. Eta hainbat jardueretan nabarmentzen ari dira eskualdeko kideak / 12-13



Orozko, Leizaran institutuan irakasle eta Amorebieta taldearekin Bigarren Mailara / 10-11



LABik ezarritako neurri berriak, eta egoera hobetzen denerako ezarri nahi dituztenen zerrenda / 5



Bertsozaletasuna indartsu dago

Andoainen eta Urnietan gogoan hartzeko bi saio izan ziren, aurreko asteburuan / 8-9



**TOLARE SAGAR DOTEGIA
URNIETA**

**943 552-744
647 437 703**

www.eulasagardotegia.com

**INGURUNE
NATURAL BATEAN**

- Ekain osoan irekita.
- Ostiral, larunbat eta igande eguerditan, 13:30etik aurrera zabalik, ENKARGUZ.





Joxe Agustin Carrera andoaindarra Aranaztegiko Garbigunean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

2013ko urrian, Tolosaldeko Mankomunitateak etxeko hondakinak gaika biltzeko eta egoki kudeatzeko Garbigunea jarri zuen martxan. Andoain eta Urnieta arteko mugan dago, Aranaztegi hiribidean. Geroztik, herritarrek birziklatu daitezkeen materialak eraman ditzakete bertara.

Zu hasieratik al zaude?

Bai, hasieratik. Aurretik Tolosako Garbigunean aritu nintzen, ia bost urtez.

Zenbat langile zarete bertan?

Tolosaldeko Mankomunitatean lau langile gara: idazkaria, teknikari-gerentea, administratzailea eta lauok. Esan behar da, horiez gain, Segihiruko enpresarekin hitzarmena egina daukela Mankomunitateak, eta horren arabera, enpresa horretako langileak Garbiguneko lanak burutzen dituzte. Izan ere, Mankomunitateak bi Garbigune kudeatzen ditu: Tolosako San Blas eta Andoingo haxe.

Gustuko lanean aritzen al zara?

Bai, baina era berean esan behar dut lana, lana dela, eta leku eta ogibide guztietan bezala, izaten dira egun hobeak eta txarraok...

"Gaika bereizten ikasten ari da jendea"

JOXE AGUSTIN CARRERA ANDOINGO GARBIGUNEKO ARDURADUNA

Egurra, altzariak, plastiko gogorra, elektrotresnak... Andoingo eta Urnietako profesionalentzat nahiz norbanakoentzat zerbitzua eskaintzen du Mankomunitateak

Zeintzuk dira zure eginkizun nagusiak Aranaztegiko Garbigunean?

Eginkizun garrantzizkoena, hona etortzen den jendeari harrera egitea, dakartzaten hondakinak nora eta nola bota jakinaraztea. Hortaz gain, bulegoko lanak burutu behar ditut, instalazioko garbitasuna mantendu, eta mantenu lan txikiak egin.

Aspertzeko betarik ez dugu edukitzen hemen.

Andoingo Garbigunea eskualdean erreferentziatzeko tokia bihurtu dela esango daiteke?

Gaur egun, Garbiguneak behar beharrezko instalakuntzak dira; horixe ondorioztatzen da, behintzat, egunero hona hurbiltzen den jende kopurua ikusita. Eskerrik horri!

Andoingo instalazioa Tolosako Mankomunitatea osatzen duten 28 herrietako herritarrentzat zerbitzua eskaintzeko ireki zen. Eskualde edo mankomunitate bakoitzak bere Garbigunea dauka. Adibidez, Hernaniko batek ezin ditu Andoingo Garbigunera hondakinak ekarri, berari dagokion tokira eraman behar ditu. Nolanahi ere, Ur-

nietako partikularrek ere erabili dezakete zerbitzu haxe, gertutasun geografikoa zela eta Tolosaldeko Mankomunitateak eta Urnietako Udalak bere garaian sinatu zuten hitzarmenari esker.

Zer jende mota etortzen da zuengana?

Bi multzotan bana daiteke: partikularrak eta gremio profesionaletako jendea (igeltseroak, arotzak, iturkinak, etab.). Garbigunea bereziki partikularrentzat dago zuzenduta, nahiz eta gremioetakoak onartu. Talde bakoitzak bere arauak dauzka. Esate baterako, partikular batek, astean gehienez 750 kg. hondakin ekar ditzake. Gremioetako langileek ordea, ezin dute kopuru hori ekarri; beraientzat propio irekitako gunera jo behar dute, eta bertan zer edo zer ordaindu. Momentuz, Garbiguneko zerbitzua doakoa da.

Herritarrek Garbiguneari ematen dioten erabilerari buruz, zer esan dezakezu?

Jendea ari da ikasten, erabileraren erabileraz, nahiz eta zenbait gehiago kosta. Onartu behar dut guk jendea hondakinak bereizten laguntzen diogula. Zenbaitetan "polizien" egitea egokitzen zaigu, baina jeneralki, gehiengoak txukun egiten ditu gauzak. Nabarmenentzen hasiz gero, esango nuke emakumeek gizonaek baino sentsibiltate handiagoa erakusten dutela hondakinak bereiztearen kontu honetan.

Goraka al doa uzten dien hondakinen portzentaia?

Orain, ditzosozko pandemia honekin gauzak piska bat trakestu egin dira, baina oro har, gorako joera mantentzen da.

Urtean, zenbatek erabiltzen dute zerbitzua?

Egunero, batez beste, ehun pertsona sartzen dira Garbigunera.

Eta hondakin kopurua?

Ez nuke nahi zifrekin inor zorabiatu nahi. Egurra da gehien pilatzen dena, 90-100 mila kilo hilero. Guk, altzariak, hau da, sofak, koltxoak eta antzekoak deitzen ditugunak, asko ateratzen dira, nahiz kilotan ez hainbeste suposatuz; astero, lau edo bost edukiontzi. Plastikoa gogorra esaten dioguna ere maiz betetzen den edukiontzia da. Inaustetarak (hostoak, belarra, zuhaitza adarrak...) urtean 250.000 kilo inguru. Tresna elektrikoak ondoren, 200 milatik gora. Hondakin



Carrera Garbiguneko bulegoan. AIURRI

guztia kontuan edukita, 2020an 2.800.000 kilotik gora hondakin jaso ziren. Bada zerbait!

Bildutako guztitik, gero zenbat birziklatzen den jakin al liteke?

2020an, erabiltzaileek egindako hondakinen sailkapenean, %79,9 zabortegitik desbideratzea lortu zen. Hondakin batzuk birziklapen altua dute; egurra, txatarra, inausketa, beira, kartoia, elektratresnak..., horiek %100a. Baina beste batzuekin ezin dugu gauza berbera esan. Plastikoen kasuan, adibidez, egin dira saia-kerak, baina oraindik ez dago birziklapena modu eraginkorrean egingo duen benetako industria-rik.

Zerbitzu hobetze aldera, zer gomendatuko zenieke erabiltzaileei?

Pare bat eskaera, bai. Lehenbizikoa, kalean jarritako edukiontzien bitartez jasotzen diren hondakinak solik, Garbigunera ekartzea. Eta bigarrena, hondakinak, ahal dela, sailkatuta ekartzea, lanak errazteko. Hemengo ordutegia gogoratu nahiko nuke, jende asko nahastu egiten baita. Goizean, 09:00etatik 12:30era, eta arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara. Larunbatetan, 09:00etatik 13:30era. Azkenik, esan, aldizkari honek eskaintzen didan aukera probetuz, urte hauetan, norbaitek nik esan edo egindako zerbaitekin minduta sentitu bada, barka nazala.

**"ESANGO NUKE
EMAKUMEZKOEK
GIZONEZKOEK BAINO
SENTSIBILITATE
HANDIAGOA DUTELA"**



Erreka ondoko paseo berriaren amaiera aldera eskilarak eraiki dituzte. AIURRI

Saneamendu lanak amaituta, noiz irekiko zain

Saneamendu lanak egin dituzte Olagain aldean, eta laster paper fabrikako presa eraisteari ekingo diote. Lan horiekin batera, ibaiaren ertzeko paseo berria laster herritarren eskura egongo dela iragarri dute Andoaingo Udalak eta URA agentziak

Erredakzioa ANDOAIN

Leitzaran ibaia herrigunera hurbiltzen da Olazar eta Olagain aldetik. Bi kokapenen toponimiak argi adierazten du ibaiarekin duen lotura historikoa. Aurreko astean, Antonio Aiz Eusko Jaurlaritzako URA agentziako zuzendari nagusia Andoaainera hurbildu zen eta Olagainen egiten ari diren saneamendu lanen jarraipena egin ahal zuen

Mari Jose Izagirre Andoaingo Udaleko Zerbitzu zinegotziarekin batera. Aizek adierazi zuenez, "Leitzarango arroaren eta haren ekosistemaren ibai-jarraitasuna hobetzea lehentasunezkoa da".

Olagain auzoko saneamendua hobetzeko eta Leitzaran ibaira zuzenean egiten diren isurketak kentzeko lanak azken fasean sartu dira. Lan horrekin batera, Kaleberria eta Santakutzeko bi

zubien artean ibai-pasealekua egiten ari dira. Bi lan nagusi horiek egiteko aurrekontua 273.000 eurokoa da. Izagirreraren hitzetan, "dagoeneko eginda dagoen lurpeko azpiegiturari esker, orain arte Leitzaranera zuzenean egiten ziren isurketak jaso eta Adunako hondakin-uren araztegiara) bideratu ditzakegu, uraren kalitatea nabarmen hobetuz". Ibai-pasealekuari dago-

kionez, "oso aurreratuta dago, aste honetan bertan aglomeratua eta goiko hormigoia egin dira; eserlekuak jartzea eta baranda osatzea falta da, eta hilabete barru amaituko dela espero dugu".

Presa eraitsiko dute

URA agentziaren zeregina ez da honetara mugatuko. Agerraldian iragarri zuten, hurrengo zeregina Papelera Leizaran enpresan dagoen presa eraistea izango da. Presa hori XX. mendearen bigarren erdian eraiki zen, papertegia ekoizpenerako urez hornitzeko. Ur hori Leitzaran ibaitik eta Ubaran errekatik lortzen zuten. Ur horretaz baliatzeko lizentzia baliogabetuta dago, eta enpresaren jardura ere 2007tik etenda dago.

Eskilarak Olagain aldera

Ibaiaren ertzean doan paseotxoak herritar askoren arreta bereganatu du. Lanak hastean, batek baino gehiagok uste zuen erreka ondoko ibilbidea zubi azpitik joango zela, Olagain auzoa Kale Nagusiarekin lotuz. Baina lanek aurrera egin ahala ikusi da ez dela horrela izango. Ibaiertzeko ibilbidea zubiarekin lotzeko malda pikoa dago, eta oztopo hori gainditzeko eskilarak ipini dituzte. Kazetarien galderei erantzunez, une oro Elkartu elkartearekin lanean aritu direla adierazi zuen Izagirrek: "Udala elkartearekin harremanetan egon da, eta teknikoei beraiei irizpideak jarraituz egin dute lan". Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak aldarrikatuz eta defendatuz, gizarte irisgarriago eta inklusi- boago baten alde egiteko sortu zen Elkartu.Udan herritarren esku egongo da eremu berria.



Izagirre zinegotzia eta Aiz URA agentziako zuzendaria, teknikoez lagunduta. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



BALORAZIOAK

HAINBAT EUSKAL HERRIA

Frantziako Kontseiluaren erabakia

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Kezka handiz jaso dugu Euskaltzaleen Topagunean Frantziako Konstituzio Kontseiluak murgiltze ereduaren kontra eta hizkuntza gutxituetako berezko zeinu diakritikoak erabiltzea debekatuz onartutako ebazpena.

Kezkatzekoa da Ipar Euskal Herriko mugimendu euskaltzaleak ereindakoa deusezteko duten borondatea nabarmena delako. Hizkuntzaren eta hiztun komunitatearen garapenerako oinarritzakoa den euskarazko murgiltze ereduaren zalantza jartzea, hizkuntza komunitatea bera desagerrarazteko nahiaren adierazle da.

Hego eta Ipar Euskal Herrian botere judizialek motibazio politikoa argiekin egindako ebazpenak jaso izan ditugu azken asteetan. Oldarraldi berri honen aurrean, batera erantzuteko

Euskalgintzaren Kontseiluak egindako deiarekin bat egiten du Euskaltzaleen Topaguneak. Horregatik, deia egin nahi diegu euskaltzale, gizarte eragile eta erakundeei: gizarte osoak euskararen normalizaziorako bidean eman dituen urratsen kontra hartzen ari diren erabaki politiko eta judizialen aurrean, euskararen aldeko jarrera praktikoa eta konpromisoari inoiz baino irmoago eutsi diezaiegun.

KONTSEILUA

Kontseiluak onartezintzat jotzen du Konstituzio Kontseiluaren erabakia. Frantziako Asanblean elebakartasunaren diskurtso zaharraren aurrean inoiz baino diputatu gehiago agertu direnean eman nahi izan dute kolpea. Gainera, Kontseilu Konstituzionalaren erabakia izan arren,

Kontseiluak berretsi nahi du Gobernuaren zenbait ordezkari erabaki hori atera zedin sutsuki egin dutela lan.

Horri lotu behar zaio, gainera, legearen eztabaida saihesteko Macron presidenteak igande batez legea promulgatu eta egunkari ofizialean agerrarazi izana. Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiaren hitzetan, "argi geratu da, Frantziako hizkuntzajakobinismoa mugitu dezaketen ekimenak geratzeko edozer egiteko prest daudela, bai eta gehien-oso bati eztabaidarako aukera ukatzeko ere".

Kontseiluak txalotu nahi du eragileek eta instituzioek erakutsitako batasuna. EAEko Justizia Auzitegi Nagusian esan bezala, inoiz baino garrantzitsuagoa da eragileak eta instituzioak batera joatea eta batasunetik eragitea.

POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

Andoain APP

Aurreko agintaldian Andoain APP-a martxan jarri genuen. Gobernantza eredu parte-hartzaile baterako tresna bat gehiago izateko helburuarekin. Herriarren aldetik harrera ona izan zuen eta laister hasi ziren jakinarazpenak egiten. Alkatetzatik jarraipen zorrotza egiten zitzairen. Eskaera aztertu, eta egingarria bazen, zegokion departamentuarekin lantzen zen. Intzidentzia itxi arteko jarraipena egiten zitzaion eta herritarrei uneoro informazioa ematen zitzairen.

2019ko ekainean eman zen gobernu aldaketarekin dena aldatu da. Intzidentziak erantzuten ez zirela lehen egunetik eman den kexa bat izan da. Egun badirodi erantzuten direla, baina "dagokion departamentura bideratu da" erantzun generikoa bat ematen da kasu gehienetan. Herritarrek ez dakite noiz egin-

go den, edo ez bada egiten ez dute zergaitiaren berri izaten.

Honek eragina izan du sinesgarritasunean eta nola ez, erabilpenean. Maiatzean 13 intzidentzia bidali dira soilik. Inoizko daturik txarrena. Urruti daude eguneko batz besterik 5-6 intzidentzia igortzen ziren hila-beteak. Udal Gobernu honen kudeaketa kaxkarraren ondorioz, APP-a karga batean bilakatu da, eta ondorioz gastu batean. Ez zen jaio horrela kudeatzeko, eta etorkizunean zer erabilpen eman nahi dioten erabaki behar dute, betiko hiltzen utzi aurretik.

"MAIATZEAN 13 INTZIDENTZIA BIDALI DIRA, SOILIK. LEHEN, BOSPASEI JASOTZEN ZIREN EGUNEKO"

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Umieta).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

Aiurri eskuragarri: Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Umieta, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ

ALIATUAK: INESTORRE, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA: ANDOINGO UDALA, Umieta

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA: Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA: Bikan

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Iñigo Urkullu Lehendakaria eta Gotzone Sagardui Osasun Sailburua, astearteko LABiren bileran. IREKIA

Gauerdira bitarte luzatu dute gizarte bizitza

Egoera hobetuz doala eta, aire zabaleko jarduera gutxi batzuk gauerdira arte luzatzeko erabakia hartu du LABk. Beste neurri aringarri gehiago ezartzeko aukera izango da, baldin eta egoera epidemiologikoa hobetzen bada

Erredakzioa ANDOAIN

Lehendakariatzatik neurri aringarriak iritsi dira, gizartearen txertaketa prozesua geroz eta gehiago zabaltzen ari den bitartean. Asteazkenean sartu ziren indarrean LABIn adostutako neurriak, eta horien bitartez gizarte eta kirol bizitzari lotutako hainbat neurri arindu egingo dira. Era berean, pandemiaren egoera oso kontutan hartu beharko litzateke. Gipuzkoan positibotasuna %11 igo baita, astebeteko epean. Igoeraren zantzuak Euskadi osoan antzematen dira. Urko Vallejo andoaindarra, datuetatik abiatuta, lan zehatza eta etengabea egiten ari da C-19 Analisi Facebook-eko orrialdean. Azken egunetan Oarsoaldean eta Buruntzaldean egoera nabarmen okertu da. Aldiz, hobekuntza nabarmena izan da Debararren. Gurera etorrita, aurreko asteburuan kasu positibo ugari izan zen, eta horrek intzidentzia-tasan eragina du. Astelehenean, datuak eskuetan, Andoaingo 14 eguneko intzidentzia-metatua 166,80koa zen. Eta, aldiz, 7 eguneko intzidentzia-tasa metatua 226,85koa.

Atzerago eginez gero, bi datu horiek hobeak ziren aurreko astean. Beraz, birusa bertan dago eta prebentzio neurriak ondo betetzea funtsezkoa izango da.

Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Maiatzak 26-Ekainak 1:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 180,14.
- **Maiatzak 19-25:** 11 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 93,41.
- **Maiatzak 12-18:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 120,10.
- **Maiatzak 5-11:** 15 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 246,86.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:** 22 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 326,93.
- **Apirilak 21-27:** 27 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 433,68.
- **Apirilak 14-20:** 38 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 447,02.
- **Apirilak 07-13:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:** 30 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 340,27.
- **Martxoak 24-30:** 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 233,52.

URNIETA

- **Maiatzak 26-Ekainak 1:** 2 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Maiatzak 19-25:** 6 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Maiatzak 12-18:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 241,58.
- **Maiatzak 5-11:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Apirilak 21-27:** 18 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 595,91.
- **Apirilak 14-20:** 19 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,33.
- **Apirilak 07-13:** 22 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 96,63.
- **Martxoak 24-30:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.

Eusko Jaurlaritzaren ebazpen berriak jasotakoa

EUSKO JAURLARITZA 2021.05.31

"Dekretu berriak bost aldaketa jasotzen ditu indarrean dagoen Dekretuan jasotako neurriei dagokienez:

- Aire zabaleko kirol-jarduera pertsona-kopurua mugatu gabe egin ahal izango da.
- Establezimenduak itxeko eta jarduerak eteteko ordutegia gaueko 24:00-ak arte luzatzen dira.
- Garraio publikoaren irteteera ordutegia gaueko 24:00-ak arte luzatu daiteke.
- Aisialdiko taldeak gehienez 10 lagunekoak izango dira, betiere egonkorrek direla bermatzen bada.
- Aire libreko erakusketa eta gunetako bisitetan

taldeak 10 lagun artekoak izan litezke.

Irizpide horien jarraipena eta ebaluazioa etengabea izango da, eta hoge eguneko epean berrikusiko da, alde aurretik edozein berregokitze egitea beharrezkoa ez bada".

NEURRIAK ARINTZEA ATZERATZEA

"LABiren Aholku Batzordeak zuhurtziazat jo du, halaber, honako neurri hauen aplikazioa atzeratzea, harik eta osasun zerbitzuen okupazio neurria eta ZIUen ohe erabilpena bigarren agertokira jaitsi arte edo Intzidentzia Tasa 150 kasuen azpitik kokatu arte. Bilakaera horrek baldintzatutako neurriak hauek dira:

- Jarduerak eteteko eta establezimenduak itxeko ordutegiak gaueko 01:00etara luzatzea.
- Merkataritzan, azoketan, azoka txikietan, kanpoko kultura-ekitaldietan eta kultu-aretoetan edukiera handitzea.
- Ekitaldietarako gehieneko edukiera handitzea: 600 barnealdean eta 800 kanpoan.
- Ostalaritzan mahai bakoitzeko sei pertsona egotea.
- Txokoak eta elkarte gastronomikoak irekitzea, ordutegia, edukiera eta distantzia mugekin.
- Barruko esparruetan kirol-jarduera ahalbidetzea, gehienez 10 pertsonako taldeetan.
- Kirol-ekitaldietan publikoa baimentzea. Beti % 60ko edukierarekin, eta gehienez 800 pertsonako edukierarekin barnealdean edo 1.200 pertsonako edukierarekin kanpoan.
- Bisita gidatuen, naturako turismoaren, aisialdi-zentro turistikoaren eta abarren kanpoko jarduerak antolatzeke pertsona-taldeak handitzeko aukera ematea.
- Edukiera % 60ra handitzea igerilekuen, lorategien, hoteletako terrazen eta kanpinen kanpoaldean".


GERORAKO UTZI DUTE TXOKOAK ETA ELKARTE GASTRONOMIKOAK IREKITZEA

“Berezkoa du artea gizakiak”

MADDI GOIKOETXEA JUANENA ARTETERAPEUTA ETA ANTROPOLOGOA
Marrazkigintza eta poesia ardatz, emozioa mahaigaineratzea du xede Urnietako AEK-k antolatutako Zilegi Eskolak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Azaletik sakonera, sakonetik azalera salto egitea du gustuko Maddi Goikoetxeak. Antropologo zein aktore izateaz gain, arteterapeuta ere bada, sorkuntza artistikoaren bidez, emozioekin bat egiteko bizipenean bidelagun. Sentimenduekin egiten du lan, artea nahiz sormena abiapuntu, haurtzarotik horiek izan baititu mundua irakurtzeko tresna nagusi. Arrazoimenetik eta arrazoimenarentzat eraikitako gizartean, intuizioa zein emozioak ditu iparrorratz, eta esparru horretan sentitzen da erosoan. Azken emaitzari baino, sorkuntza-prozesuari ematen dio garrantzia. Bada, ibilbide horretan ipini nahi ditu aurki hainbat kide. Izan ere, Urnietako AEK-k, ekainaren 9an “Sormen laborategia: poesia eta marrazkia uztartzen” tailerra antolatu du, Zilegi Eskola proiektua medio. Arteterapeuta izango dute gidari, orri zuri batean kabitutako hitz-jokoekin eta marrazkiekin badelako barrura begira jartzerik. **Bidaia introspektiboa egiten du norbanakoak arteterapiaren bidez. Zer aurkitzen du ibilbide horretan?**



Maddi Goikoetxea Juanena.

Denetik aurki genezake. Finean, zure barrenak modu sakonean ezagutzeko modua da arteterapia, eta baita munduarekin era ezberdinean harremantzeko tresna ere, ikuspuntu sentiberago batetik, hain justu. Zeure burua eta ingurukoa: maiz, uste ohi da barrura begira ipintzeak ezinbestean dakarrela ingurutik isolatzea, hots, burbuila batean sartzea eta mundutik deskonektatzea. Bada, nire ustez, kontrakoa da xedea, izan ere, etengabeko elkarreraginean bizi gara, etengabeko elikatze batean. Askotan mintzo gara *erresonantzi*az, alegia, inguruan dugunak gudan duen eraginaz. Hitz gutxitan, arteterapia da saiatzea mundua nahiz geure burua irakurtzen modu sakonagoan edo sentiberagoan.

Izenak berak ematen dio arteterapiari terapia kutsua, eta badirudi horren helburua dela artea psikoterapiaren zerbitzura uztea. Batzuetan, aurreiritziak sor ditzake horrek, zeren jendeak terapia ulertzeko definizio jakina baitu buruan; are gehiago, terapiara joatea bera ere estigmatizatuta dago. Ni ez naiz psikologoa, arteterapiari jardun naizenez gero, hamaika prozesu psikologiko eta emozional landu ditut, eta gustatuko litzaidake jendeak “terapia” hitza zentzu zabalean ulertzea, autoezagutzarako bidetzat hartzea.

Bidaia pertsonala al da?

Bidaia horrek daukan ezaugarri behienena da ez duela zertan oso arrazionala izan, edota arrazionaltasuna ez dela protagonista. Aitzitik, horrela funtzionatzen dugu gizartean, arrazionaltasuna oinarri bizi gara, eta hortik abiatuta harremantzen gara inguruarekin. Ildo beretik, gizarte ereduak ez digu uzten geure

buruarekin behar bezala harremantzen. Hala, arteak horixe ematen digu, zeren lengoaia abstraktua baita; esperimentatzen eta komunikatzen uzten digu.

Hasiera batean, jende askorentzat deserosoa da bidaia: batez ere, artearekin harreman zuzena ez duten pertsonentzat eta nortasun zurruna duten ki-deentzat. Zaila egiten zaie gai jakinen gainean eraikitako ideiak alboratzea eta beste hainbat ezagutzea. Barregarri gelditzea dio beldur jende askok, epaiari. Artea bera ere epaitu egin ohi da, izan ere, diziplina hori irizpide trinko batekin gizartearatu da, zer dagoen ondo eta zer gaizki zehazten digun irizpide batekin, hain zuzen ere. Arteterapiak erabat hausten du horrekin: helburua ez da espektatibak betetzea, esplorazioa baizik.

Sarri, zaila zaio jendeari artea emozioekin lotzea. Alabaina, zuretzat harreman estua dute, ezta?

Jakina. Emoziorik gabe ezinezkoa litzauguke artea sortzea, izan ere, oso emozionala da artea. Ez da kontua alderdi intelektuala eta emozionala bereiztea, osotasun baten parte direlako biak ala biak. Nolanahi ere, ikuspegi arrazionala, intelektuala, esparru emozionalari gainjartzen zaio, hots, maiz, pisu handiagoa hartzen du, eta hori ez dut batere gustuko.

Emozioen kudeaketarako tresnatzat duzu artea. Baina oso hitz potoloa da hori, artea egiteko hamaika bide baitaude. Nora jotzen duzu zuk?

Antzerkitik nator, eta horixe izan da artean nire zaletasun handiena. Bestalde, idaztea ere betidanik izan dut gustuko; beraz, idazketa ere badut nahiko presente. Halaber, antzerki fisko delata, gorpuz adierazpenari, mugimenduari, izugarritz



Koronabirusari lotutako orainkaria
Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
- Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN

w w w . a i u r r i . e u s



Urnietako
udala

ko garrantzia ematen diot. Dena den, beste adar asko ditut nire intereseko. Horieta banituen zenbait konplexu lehen, abestearekin zein dantzarekin, besteak beste. Hori horrela, antzerki fisikoaren bidez lortu nuen beste modu batean erreparatzea ustezko oztopo horiei, eta, ondorioz, egun, diziplina artistiko guztietan murgiltzea gustatuko litzaidake.

Esperimentazioa lehenesten da arteterapian. Zer ematen dio horrek norbanakoari?

Askatasuna. Lehen aipatu bezala, esperimentazioak ez du lekuri gure gizartean; epairik gabeko jolasa da, jakin-minaren bideari eusteko aukera. Hori da niretzat mundua ezagutzeko modu naturalena, horixe egiten dute umeeak, adibidez. Bide zurrunak erakutsi dizkigute, eta epaitu egiten da bertatik ateratzen den gauza oro. Dena dela, horiek ez dira bide bakarrik. **Sormenari dagokionez, jende askok egiten du topo ustezko talentu ezaren harresiarekin.**

Ez dakigu esperimentatzen, makina bat oztopo ditugu. Marrazten ari bagara, adibidez, askotan

proposatzen diet zirriborro bat egiteko: ez zaio inori axola nola egiten duzun marrazki hori, ez dago hori irudikatzeko modu jakin bat. Garrantzitsuena ez da zein marrazki egiten duzun, baizik eta marrazki hori egiteak nola sentiarazten zaituen zu.

Zein leku du arteak gurean?

Egun, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin nago lanean, antzerki-eskolen gaineko ikerketa batean. Honako hau izan da ondorio nagusia: arteak (ikerkuntza horretan, zehatz mehatz, antzerkiak) ez dauka prestigio sozialik. Horregatik, ez dago ezagutza handirik, eta askotan lotzen da haurren kontuekin edo aisialdiarekin. Gizakiak berezkoa du artea, eta, historikoki, tresna baliagarria izan da norbanakoarentzat, sentitutako gauza sakonena azaleratzeko zein adierazteko.

Eta horrexegatik da garrantzitsua horrelako esparru ezezagunak herritarrengana hurreratzeko. Ekainaren 9an izango zara Urnietan, AEKren eskutik. Laborategi kutsua duen tailerra izanen dela diozu.

Esperimentazioa izango dugu lehentasun, besteak beste. Ez dut



Poesia eta marrazkia uztartuko dira AEKren Zilegi Eskolan.

tailerrari buruzko inolako espektatibarik, alegia, ez daukat finkatuta noraino iritsi behar garen. Jolasetik, esplorazio horrek ematen digun askatasunetik, ea zerekin egiten dugun topo.

Oro har, zer landuko dute parte-hartzaileek laborategian?

Batik bat, marrazkia eta poesia izango dira oinarri. Baina beste hainbat gauza ere egin ditzakegu. Hasiera batean, arteterapia interdiziplinarra egitea otu zitzaidan, baina jendeari ezezaguna denak beldur handia ematen dio, eta horrexegatik zehaz-

tu ditut apur bat tailerraren nondik norakoak.

Espazio seguru batean egongo gara, ez da inor behartuko ezer egitera. Ariketak proposatuko ditut, baina bakoitzak erabakiko du noraino jo nahi duen, nik ez dut inor agerian utzi nahi. Uneren batean, baten batek ez badu zerbait egin nahi errespetatuko da, jakina. Jendea zaurgarri sentitzen da ariketetan, eta guk horixe bilatzen dugu, zaurgarritasun horretatik abiatutako lotura sakona. Espazio segurua da, parte-hartzailea aske sentituko da nahi duena egiteko, nahi duenarekin eta nahi duenarekin. Tailerrean gertatzen dena, noski, tailerrean geldituko da.

Zergatik uste duzu dela garrantzitsua arteterapia?

Nork bere burua ezagutzea ezinbestekotzat dudalako. Gartzateko joerak kontuan hartuta, jende gutxi egiten du bat bere barrenekin, eta, beraz, baliagarria da modu sentiberago batean harremantzeko. Izan ere, emozioek ez dute espaziorik gurean eta, hain zuzen ere, arteterapiak horiei egiten die aitorrtza.

AEKn, UDA BATEK BIK BESTE BALIO DU
Euskara ikasi eta gozatu egingo duzu

2021 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

EUSKALTEGIAK
Ikastaro trinkoak - Cursos intensivos
Etxe ondoan - Cerca de casa
Euskara ikasteko - Azterketak prestatzeko

ONLINE IKASTAROAK
A1, A2, B1, B2, C1, C2

2 ASTEKO BARNETEGIAK
Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko

www.aek.eus
673 300 100 / 946 464 000

Espazio seguruak

HERNANIALDEKO AEK

30 ORDU (ikasle arituentzat)
B1, B2, C1 | Irailan | 52 €

80 ORDU
B1, B2, C1 | Irailan | 138 €

AUTOIKASKUNTZA 75 ORDU
B1, B2, C1 eta C2 mailak
Uztailan eta irailan
280 € (B1, B2 eta C1) 387 € (C2)

DIRULAGUNTZAK: %100 arte jasotzeko aukera

Matrikulatzeko EPEA: uztailaren 19ra arte
(autoikaskuntzan ekainaren 30era arte).

Deitu edo idatzi:
HERNANI · 607 592 864 · hernani@aec.eus
ASTIGARRAGA · 607 610 687 · astigarraga@aec.eus
URNIETA · 662 338 747 · urnieta@aec.eus



Beloki, Illarregi, Akizu, Arzallus eta Mendizabal Goiburu auzoko San Esteban ermitan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Sega gazte elkarteak antolatutako ekitaldia, Udaren laguntzarekin. Bertsozale ugari gerturatu zen elizara bertsolariak zuzenean entzuteko irrikaz; jakinmina, bereziki, Illarregi leitzarrarekin eta Akizu urte-txuarrarekin jarrita zeukaten, Andoainen sekula abestu gabeak baitziren. Ion Beloki gai-jartzailearen agindutara, hainbat egerra jorratu behar izan zuen laukoteak, gogoeta zein umore puntu politak plazaratuz: pandemia garaian egindako ekintza gogaikarrien errepaso, baserri-tarraren eta kaletarraren arteko liskarra, aitona eta amona eztabaidan bilobak zaindu ala ez erabaki ezinik, bikotea topatzeko Tinder aplikazioarekin

Goiburu bertsoetan

Joanes Illarregi, Maialen Akizu, Maddalen Arzallus eta Unai Mendizabalek bertsoen maitaleek gozatzeko moduko saioa osatu zuten San Esteban ermitan, igande eguerdian. Bideo-sorta zabala ikusgai dago Aiurri.eus webgunean

gora beherak, zer modutara ezkondu adostu ezinean dabilen bikotea, euskararen aurkako erasoak Frantziako estatuan...

Grazia handiko bertso ale ugari kantatu zituzten, eta horien artetik, beharbada Illarregi beste hiruri erantzuten aritu zene-

ko saioak eragin zituen barrerik handienak entzuleen artean. Hara Belokik ipini zuen gaia: "Joanes, zuk Tinder aplikazioa

jaitsi duzu, bikote bila baitza-biltza. Atzeko hiru horiek zure bikote gaiak dira; beren buruaren propaganda egin beharko dute. Zuk entzun zer dioten, eta erantzuna eman".

Maialen Akizu:

Tinderrarekin aspaldi hontan a ze nolako jarduna. Ene, leitzar bat, uy! Interesante, eta bihotzak pun-puna. Nahiz e banator fina gertuan bertso grina, ta aitu zazu, kuttuna: hemen daukazu ezkonberri bat gainera terreno duna (bis).

Joanes Illarregi:

Aplikazio hori jeitsita hasi nun nire jarduna. Azken egunetan bertan sartuta pasatu ohi dot eguna. Berak eman bihotza, nik pereza ta lotsa. Ez dot nahi neska laguna. Enuke nahi bat ligatu aurretik ezkontzan pentsatzen duna (bis).

Maddalen Arzallus:

Ene ze harri jarri ixkiñan, ze txirrin jarri atarian. Terreno batek zenbat problema obrak hasteko garaian. Nik badaukat kotxea, bi pisuko etxea, juxtu-juxtuan nago playan. Leitza zuloan baino hobeto ez ote zaude Hendaian? (bis).

Joanes Illarregi:

Orain Maddalen aterea zait bigarrena nere listan. Baina gehiegi ez zait gustatu zein deia etorri zaitan. Ni gustura naiz playan, bai, baina ez Hendaian segituta zure bistan. Lehen muxua eman orduko irtengo naiz telebistan (bis).

Unai Mendizabal:

Lasai, nerekin ez dezu izango kamara tzar baten mira. Unai-ekis-seis anonimoa ta gizona naiz, begira. Bik aurpegin bizarra, Gozua zein lakarra, lija pareta, hori da. Seguru nago, lehen igurtzitik txispak aterako dira (bis).

Joanes Illarregi:

Gure bizarrak elkartu eta egon gaitezke galako. Aukera ona izan zaitezke gau bero on baterako. Dauke Audi gorrie, bertsoetan etorrie. Bizar polit da halako. Zuri baietza emanen dizut azken aukera zalako (bis).

Bertso pasarte hau eta gehiago Aiurri.eus gunean ikusgai.



Goiburuko
bertso saioa
Aiurri.eus
gunean ikusgai.





Aizpuruak, Garate, Tolaretxipi, Arrizabalaga, Isusi eta Mendiluze bertsolariak, Oiarbide eta Jauregi gai-jartzaileekin, Sarobe arte eszenikoen gunean. AIURRI



Ekain Tolaretxipi. AIURRI



Jon Mendiluze. AIURRI

Eskolarteko bertso finala

Ekain Tolaretxipik, Jon Mendiluzek, Nerea Isusik, Joar Garatek, Amets Aizpuruak eta Naia Arrizabalagak jokatu zuten Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala, Sarobe antzokian

Erredakzioa URNIETA

Eresti Oiarbide gai jartzailearen esanetara jarri zuen seikotea, bertsotan. Epaimahaikide gisa, berriz, Leire Beloki, Zigor Leunda eta Amaia Otxotorena aritu ziren. Poliki aritu ziren sei gazteak, eta orohar, egoki eutsi zieten bertsolaritzaren ofizioak dauzkan berezko zailtasunei: hala nola, buru-azkartasuna, arrazoi zorrotzak botatzeko trebezia, errimatarako egokitasuna...

Bertsolaritzaren transmisioak osasuntsu segitzen duela islatu zen Urnietan, eta atal horretan, azpimarratzeko datua ere bada Aitor Mendiluzeren semea, Jon, kantuan aritu zela. Aitak plaza-rako daukan patxada eta berez-kotasunetik asko erakutsi zuen semeak. Lau lan puntuagarri

egin behar izan zituzten: zortziko txikian bertsoa osatzea, lau oinak emanda; zortziko handiko lanak, ofizioka, bina bertso; zortziko handiko lanak, ofizioka, bina bertso; eta, bakarka, aurrena puntuari erantzunez, eta ondoren gaia emanda bertsoa osatzea.

Lau oinak emanda, bertsoa osatzeko ariketan, hona Mendiluzek kantatu zuena.

Oinak: musika, jarrita, kritika, hasita.

Gazte gehienek eran maite dek musika, ta edukitzen det logelan nik sarri jarrita. Altuegi dagola aitaren kritika, ta horregatik nago nazkatzen hasita.

Zortziko handiko ariketan, hona, segidan, bi bertsoaldi.

Joar Garate, Ekain Tolaretxipi

Gaia: "zuen gurasoek arropa denda daukate, eta jubilatzer doaz. Zuei proposatu dizute dendarekin jarraitzeko. Joar ados zaude. Ekainek ez du nahi".

Joar Garate:

Hirurogei ta bost urte eta jubilatzeaz ba, jada. Ta gure denda maite horrekin zer egin behar da, hara. Eta gure Ekain, izanez bere oinordekotzakok gara, denda horrekin segitzea, ba, gauza oso polita da.

Ekain Tolaretxipi:

Gai honek ni re orain utzi nau, bada, nahikoa erreta. Eguneroko nire agenda eduki ohi det beteta,

gainera ez det inportantea dana ikasteko beta.

Alkandora ta kamixeta re bereizten ez dakit eta.

Joar Garate:

Zu lasai egon horregatikan, azkar moldatuko zera. Baina jadanik baietz esanda segi dezagun aurrera. Ze gurasoek eman digute ja lanerako aukera. Adin honekin lan egitea beti ondo etortzen da.

Ekain Tolaretxipi:

Zure teilatun utziko det nik une honetan baloia. Pasareletan ea noizbaiten jo beharko dezun goia Ta espero det ez ematea oraintxe zuri bajoia. Erretiratu ingo naiz eta to zuretzako marroia.

Naia Arrizabalaga, Jon Mendiluze

Gaia: "Zuek herriko gazte taldean hartzen duzue parte. Udalak dio aurten ere ez direla festak ospatuko, eta beraz ez duela ekitaldirik antolatuko. Zuk, Naia, uste duzu gazteek antolatu behar zenuketela herritarentzat. Jonek uste du hobe dela ezer ez egitea".

Naia Arrizabalaga:

Duela hiru urtetik martxan dago gazte asanblada gazteak hemen gustora dabiltz beti hona eta hara. Festarik ez da ordea, nazkau samar gaude denok jada. Zer egiteko badago eta hortarako behar gara.

Jon Mendiluze:

Udalak in du aurtengo hontan festa egiteaz paso.

Zu jarri nahian zabilta hemen zenbait zirko eta pailazo.

Idea ona irudituko zaizu nerea, akaso: onurak dauzka oso gutxi ta badauzka mila arazo (bis)

Naia Arrizabalaga:

Bai badakit Jon, berez ez degu antolatzeke erraza Ta udala ez degu izan horretarako kapaza. Bi pailazoez baietz bat eman gazte guztiei arnasa. Ta ezin degu beti besteen zain denbora luze pasa (bis)

Jon Mendiluze:

Nere ideiekin zimurtu dira asanbladan hainbat mutur. Baina lasaitu, enabil gaizto. Lasaitu, enabil makur. Utzi ditzagun heldu guztiak behingoagatik zurt ta lur. Ta izan gaitezen herri honetan txukuntasunaren ikur (bis)

FINALEAN, BERTSOLARI GAZTEEK EGOKI EUTSI ZIOTEN OFIZIOAK DAUZKAN BEREZKO ZAILTASUNEI

Mikel Arberas ANDOAIN

Iñigo Orozko Andoaingo Leizaran ikastetxeko irakasle izatetik, bigarren mailako futbolari profesionala bilakatzera iritsi da, 27 urterekin. Amorebieta futbol taldeko jokalaria da eta, aurten, igoera preziatua eskuratu du. Gauzak horrela, egunerokotasuna goitik behera aldatu zaio. Egun hauetan, sinistu ezinik dabil zer lortu duen, eta ez da gutxiagorako; izan ere, futbol talde handien aurka jokatzeko aukera edukiko du eta alderdi ekonomikoan bultzada handia jasoko du. Hala ere, taldean egingo diren aldaketen berririk ez du eta ziurgabetasuna handia da, oraindik.

Olatuaren aparrean zaudete, zein da zure sentsazioa?

Apur bat zaila da azaltzea orain-txe bertan daukadan sentsazioa. Nola esango nizuke... Lortu duguna izugarria da eta, nire ustez, ez zuen inork espero. Bagenekien hirugarren postua lortuz gero, talde onen aurka jokatu behar-ko genuela lehen eta bigarren fasean. Gainera, Badajozen aurka jokatzeko egokitu zitzaigun. Oso zaila zen hori guztia irabaztea. Egia da ere ilusio handia genuela, taldean sinesten genuen. Geure jokoa eginez gero, aukerak sor zitezkeela pentsatzen genuen.

Orain nola sentitzen naizen? Egia esan, ez dakit. Galduta. Ezjakintasun handia dago igoeraren gainean; ez dakigu gauzak nola egingo diren, zein bilakae- ra edukiko duen edota zer jazoko den klubarekin. Izugarri gozatzen ari gara, baina, era berean, ez dakigu zer jazoko den. Oso arraroa da. Egoera geure kontrolpetik ihes egingo balu bezala gaude.

Badajoz taldearen aurka garaipena eskuratu zenuten. Aurrekontu handienetakoa zuten, zeuena, berriz, txikienetakoa...

Extremadurako udalerririk handiena da Badajoz, 150.000 biztanle ditu, gutxi gorabehera. Bestalde, Zornotza herri txiki bat da, 20.000 herritarretara iristen ez dena. Ezberdintasunak ikusteko, alderatzea besterik ez dago. Badajoz bezalako hiri handiek laguntza ekonomiko izugarria izan ohi dute.

Zure gola ezinbestekoa izan zen igoerarako lehian...

Aipatu duzun bezala, olatuaren aparrean gaude. Betidanik jokatu izan dut futboleko, baina Oho-

"Pribilegiatua naiz, zoratzekoa da hau guztia. Ez dakit zer esan"

IÑIGO OROZKO AMOREBIETA FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

Andoaingo Leizaran institutuan irakasle eta futbolaria Amorebietan. Donostiarrari bizitza goitik behera aldatu zaio; 2. mailara jauzi egin eta gero



Iñigo Orozko futbol jokalaria. AIURRI

rezko mailan edota 3. mailan; baina bapatean Amorebieta bigarren B mailara igo zen eta erronka horri eutsi nion. Erronka hartatik bigarren mailara jauzi egin dugu, eta zer nolako jauzia. Ez nuen inoiz imajinatu-ko hau guztia. Agian, 28 urterekin profesionala izateko eta futboleko bizitzeko aukera edukiko dut. Pribilegiatua naiz, zoratzekoa da hau guztia. Ez dakit zer esan.

"El Chiringuito" telebista-programan ere agertu zara.

Amatxo maitea. Lotsa izugarria pasa nuen kamerak Leizaran institutua gerturatu zirenean. Gainera, nire lankide batzuek Amorebietaren lorpenaz ez zekiten deus, beraz, bapatean jende asko hasi zen igoeraren berri edukitzen. Eta, "El Chiringuito"ren programarena pasada bat izan zen, jakinda, Espainian gehien ikusten den kirol programa dela. Zabalkunde izugarria eduki du.

Talde handi askoren aurka jokatzeko aukera edukiko duzue datorren urtean; besteak beste, Eibar, Realeko bigarren taldea edota Rayo Vallecano...

Ipuruan eta Anoetan jokatu-ko dugu talde handien aurka. Vallecasen ere jokatu-ko dugu Rayo handiaren aurka, hori bai dela partida. Oso norgehiagoka politak edukiko ditugu. Gainera, Espainiako zoko guztiak ezagutu-ko ditugu, leku batetik bestera mugituko baikara.

Futbolaria izateaz gain, Leizaran institutuko irakaslea ere bazara. Orain arte, nola uztartu dituzu bi lanak?

Amorebietak uzten digun auke- retako bat da, eta horregatik oso eskertuta gaude. Zera esan nahi dut: ordutegiak moldatzeko aukera eman digute, izan ere, taldekide askok beste lan batzuk dituzte, esaterako, irakasleak, informatikariak edota familiako dendetako langileak dira. Taldeak bi arloen arteko oreka mantentzeko aukera uztea, benetan eskertzekoa da. 2.B mailan soldadak ez dira izugarriak, eta lan batekin uztartzean, behintzat, hilabete bukaerarako diru- sarrera interesgarria lortzen dugu.

Babesa jaso duzu ikasleengandik eta irakasleengandik?

Futbolzaleak diren ikasleak jakinaren gainean zeuden eta asko animatzen ninduten; as- telehenetan, sarritan galdetzen



Orozko taldekideekin igoera ospatzen. AMOREBIETA



Orozko taldekideekin eta lagunekin Badajozen lorturiko igoera ospatzen. AMOREBIETA

zidaten partidei buruz. Lankideei dagokionez, irakasle askok ez zekiten taldearen egoeraz, baina, El Chiringuiton eta he-dabideetan agertu ostean, guz-tiak jakinaren gainean jarri ziren. Oro har, oso ondo portatu dira irakasleak, zuzendaritza eta eskola. Egoera askotan erraztasunak eman dizkirate. Esaterako, kanpora joan behar nuenean edota entrenamenduak nituenean.

Bigarren mailarako jauzia eginda, bi lanen artean aukeraketa egin beharko duzu, ezta?

Amorebietan jarraituz gero, aukeratu egin beharko dut, bai ala bai. Maila horretan ezin da bi gauzetan ibili. Zirt edo zart egin behar da, bata edo bestea aukeratu. Mementoa iristean, dudarik gabe, futbola aukeratu dut. Parentesi txiki bat, behintzat, onuragarria izango da niretzat.

Bigarren mailan jokatzuz gero, ekonomikoki lasaiago egongo zara seguruenik, ezta?

Jakina. Soldata oso altuaz hitz egiten ari gara. Sekulakoa. Futbolaren burbuia da. Kirol honek ez du ulertzen arlo ekonomikoaz, gizartetik at dago. Datu bat ematearren, bigarren mailako gutxieneko soldata 77.000 eurokoa da urteko. Orain arte eduki dudanarekin alderatuta, diru kantitate oso handia da. Gu-

txienekoaz ari gara, pentsa zenbateraino handitu daitekeen. Zein aldaketa egingo diren taldean adierazi al dute?

Lehendakariarentzat eta kirol zuzendariarentzat ere izugarriko jauzia da igoera. Pertsona hauek gustuko dutelako daude postu horietan, musutruk egiten dute lan. Orain, bapatean, mila gauza kudeatzen eta egiten ikasi beharko dute. Lan karga eta presio izugarria dute. Gainera,

ezjakintasuna handia da gauza askoren gainean eta, oraindik, ez dira geurekin kontaktuan jarri. Baina pentsatzen dut laister esango digutela zerbait, izan ere aurre-denboraldirako ez da asko falta. Klubarentzat bizitza berri bat hasiko dela esan genezake.

Egoera kudeatzeko lanean ariko direla pentsatzen dut eta jokariok deiaren zain geratuko gara, ea zer esaten diguten.

**Laster,
uda giroko
Ikusbera
aldizkaria.**

**Aiurriko
harpidedunek
zenbaki berria
buzoian
jasoko dute!**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



POSTONTZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Giroko notak

Hainbat izen propio utzi dizki-gu bukatu berri den itzuliak, batzuk onean, eta besteak txarrean. Irakurle, zure baimenarekin, behetik gora hasiko naiz.

0 Giroko RCS talde antolatzailea eta Mauro Vegni ugazaba.

Txapuz handi samarra egin baitzuten Giroko etapa erabakigarriean, Cortina d'Ampezzo herrian bukatu zena. Abenduan irrikan egoten gara Giro zaleak, ibilbidea jakin zain, eta igoko dituzten mendatetzarrak go-goan, puztu egiten gara, baina urrutiko intxaurrek hamalau, hurbildu eta lau... etapa gogorena erabat kamustu zutelako. Muturreko eguraldi baldintzen

araua garbia da UCiren arautegian, baina horien interpretazioa askea. Tappone edo Dolomitako etapa gogorrean eguraldia kriminala zen, bai: euria, hotza, eta tenperatura 0 eta 2 gradu artekoa Marmolada eta Pordoi gainetan. Bi mendate horiek kentzeko nahikoa baldintza txar? Ez. Antzeko edo egoera okerragoetan errepideratu izan direlako ziklistak. Antolatzaileek planto baten arriskua sumatu zuten, iaz Stelvio igo osteko etapen gertatu bezala, eta Vegni garbi mintzatu zen: "Cortinara iritsi behar dugu, bai edo bai", horretarako Passo Giau gaiztoko jaitsiera egin behar bazuten ere. Cortinak euro asko jarri baitzituen helmuga izateko, eta tropelak bide erdian planto egin izan balu, akabo, ez ziren Cortinara iritsiko. Hori, noski, ez zuen aitortu Vegnik. Kale RCS-k, ez zuelako ibilbide alternatiborik proposatu, prestatu, eta Pordoi eta Marmoladara hurbildu ziren milaka zale tonto aurpegiarekin geratu zirelako. RCSk berea defenditu zuen, akaso, sosak, baina prestigioa galtzen ari da zaleen artean. Hurrengo egunetan jakin zen txirrindulariek ere etapa osorik ez korritzeko presioak egin zituztela... Zurrumurru hauen inguruko baieztapenik ez dagoenez, juzkurik ez. Argituko da, kontua, berandu baino lehen.



Aurtengo podiuma. Lasterketaren jarraipena Aiurri.eus bidez egin ahal izan da. AIURRI

10: Bernal eta INEOS: Bigarren itzuli handia 25 urterekin kolonbiarrarentzat. Majo sufritu zuen iaz, bizkarreko minak jota, eta distira handirik gabe, baina eroso irabazi du Giroa. Bere mailan INEOS taldea, ikusgarri beste behin. The Empire beti inperio!!!

9 Caruso: Morroi jardunerako prest, Mikel Landarentzat, eta nagusiak adina edo lan hobea egin du, 33 urterekin. Bikain siziliarra! Eta galdera: morroi izatera bueltatuko al da, orain?

8 Txirrindulari euskaldunak: Batez ere Jonathan Castroviejo eta Pello Bilbao. Odol garbiko zaldi bikainak, sakrifizioarako prest beti. Castrok aldapa pikoak nola igotzen dituen ikustea, edota Carusok Pellori bere lana eskertzeko egin zion keinuak erakusten du langileen benetakoa balioa. Mikel Nieve eta Gorka Izagirre ere txukun, beste biak baino distira apalagoarekin.

7: Qhubeca Assos taldea: Garaipen premia larrian aspaldi, sekulako Giroa egin dute hiru etapa garaipen lortuta Schmidt, Nizzolo eta Campenaerts-ekin. Ag2r-Citroen ere txukun, Vendramen etapa eta Bouchardentzat mendiko maillota.

6: Ewan: Esprinter onena. Bi etapa irabazi eta etxera, hiru handiak korritu nahi dituelako. Nahiko ondo Sagan, etapa bat eta maglia ciclamino-a, eta Merlier debutaria.

5: Yates: Bai, baina ez. Irregularra, bigarren podiuma itzuli handi batean. Falta zaio zerbait. Eguraldi txarrarekin itzali egiten da. Jarrera ausarta erakusten du sarri.

4: Vlasov: Badaramatza itzuli batzuk, faboritoen zerrendan beti, baina podium-eko borrokatik urrun. Laugarren postua onartzeko modukoa al da? Agian bai, oraindik 25 urte bakarrik dituelako. Espektatibak hobeak ziren.

3: Evenepoel: Iraun zuen lehen bi astetan, baina pott egin du. Arazo handia dauka teknikoki, jaitsieretan. Beldurrak tenkatzten du, eta ikasten ez badu gorriak pasako ditu aurrerantzean.

2: Talde indartsuenaren diktadura: Etapa asko ustel samarrak izan dira, INEOS taldeak ihesaldiak minutu asko hartzeko erabakia hartu duelako. Hiruzpalau etapetan 10 minututik gorako atzerapenarekin helmugaratu da tropela, eta batean 23 minutu... Gehitxo.

1: Gaviria eta Viviani: Pattal, oso, eta elitean jarraitzeko kome-riekin, emaitzen faltan. Oso berde Giroan.

BILBAO ETA CASTROVIEJO NABARMENDU DIRA, BAINA BAITA NIEVE ETA IZAGIRRE ERE



ANDOINGO

Gipuzkoako txapeldunak

TXIRRINDULARITZA Kadeteak Gipuzkoako txapeldunak bilakatu dira erlojuaren aurkako modalitatean. Egindako denboraldi onaren emaitzak jaso ditu Andoingo Txirrindulari eskolak. Hala ere, lanean jarraitu beharko dute datozen lasterketetan lehenengo postuetan sailkatzen jarraitzeko.



EUSKALDUNA

Izen-ematea futbol eskolan

FUTBOLA Euskaldunak futbol eskolan izena emateko deialdia zabaldu du ekainak 20ra bitarte. 2010-2013 urte arteko neska-mutilei zuzenduta dago. Koronabirusak sortutako egoera medio, izen-ematea Euskaldunako webgunearen bitartez egin beharko da. Edozein zalantza edukiz gero, idatz ezazue mezua euskalduna1923@gmail.com helbidera.

Javi Menta maila onean

ATLETISMOA Andoaindarrak Valladoliden egin zuen lasterketa, 10 kilometroko Villa de Simancas lasterketan. Zumeatarrako korrikalariak 33:47ko markarekin lehen seniorraren garaikurra eskuratu zuen. Ez hori bakarrik, lehen bost lasterkarien artean sailkatu zen. Esan beharra dago, azken hilabeteetan sasoi ezin hobean dagoela eta maila handia erakusten ari dela.



ZUMEATARRA



Oriamendi Eskola txapelketako erremontistak. UTS

Loitegi-Goikoetxea bikoteak irabazi du txapelketa

ERREMONTEA Irazu-Murgiondo bikoteak ezin izan zuen garaipena eskuratu Loitegi-Goikoetxea bikotearen aurka

Erredakzioa ANDOAIN

Ligaxkan gertatu bezala Loitegi eta Goikoetxea gehiago izan ziren eta aurkariak mendean hartu zituzten (40-31). Hasiera orekatua izan zuen finalak. Lau erremontistak maila paretsuan hasi ziren eta 18na egon arte ez zegoen batere argi nork irabaziko zuen txapela.

Hala ere, partidu erditik aurrera Loitegi aurrera pausoa eman zuen, eta lehenengo abantaila garrantzitsuak lortu zituz-

ten gorriek. Bost tantogatik egin zuten ihes markagailuan eta hortik aurrera kontrolpean eraman zuten partidua. Bikoteen arteko aldeak gora egin zuen eta finala bederatzi tantogatik irabaztea lortu zuten. Murgiondok zortzi tanto egin zituen sakearekin, baina peloteoan Goikoetxea hobeto aritu zen. Aurrean Loitegi izan zen finaleko erremontistarik nabarmenena, nahiz eta Irazuk ere partidu ona jokatu zuen.



UTS

Ansak jokatu du finala

ERREMONTEA Astelehen gauean jokatu ziren Sagardoaren txapelketako finalaurreak. Ikusmin handia sortu zuen Eitb 1eko Erremontari saioak, izan ere, Ansa eta Goikoetxea herrikideek elkarren aurka jokatu zuten. Erakustaldia eman zuten bi urnietarrek, baina Ansa-Labaka bikotea defentsa sendoagoa eta eraso eraginkorragoaz lehiatu zen (30-22). Gauzak horrela, Ansak eta Labakak Urriza-Zaldia bikotearen aurka jokatu dute.



Maddy Duran UKEko jokalaria. UKE

Urnieta Quel Abogados Gipuzkoako azpitxapeldunak

ESKUBALOIA Norgehiagoka bizia eta ona jokatu zuten arren, garaipenaren atarian geratu ziren

Erredakzioa URNIETA

Igoera fasean irabazi egin zuen Urnieta Quel Abogados taldeak (28-20), baina ez zuen igoera eskuratu, Eibarrek Ereitza garaitu zuela medio. Oro har, norgehiagoka zaila izan zen eta aurkariak memento askotan mendean hartu zituzten urnietarrak. Partidak aurrera egin ahala, UKEkoak zumaiarrei neurria hartzen hasi ziren, gutxinaka markagailuko aldea murriztuz. Lehen zatia amaierarako bi goleko aldeagatik irabazten jarri ziren.

Bigarren zatian urnietarrek defentsa sendoagoa eta eraso eraginkorragoa erakusten hasi ziren, markagailuko arrakala handitzea lortuz. Esanak esan, partida zaila izan zen, baina Quel Abogados taldekoek aurre egiten jakin zuten. Azkenean, ez zuten igoerarik eskuratu, Eibarren garaipena zela medio. Hala eta guztiz ere, urnietarrak Gipuzkoako azpitxapeldunak bilakatu dira.

EZ ZUTEN IGOERA ESKURATU, BAINA GIPUZKOAKO AZPITXAPELDUNAK BILAKATU DIRA



Andoaindarrak Gaztañaga sagardotegian garaipena ospatzen. GAZTELEKU

Andoaindarrak Gipuzkoako Herriarteko pala txapeldunak

PALA Andoainek Oreretaren aurka irabazi zuen Herriarteko txapelketa, paleta larruz eta pala motzean

Erredakzioa ANDOAIN

Paleta larruz irabazi egin zuten Iradik eta Poncek (35-23); pala motzean, berriz, galdu egin zuten Altunak eta Rekaldek (33-40). Tanto-kopuruak eman zien garaipena andoaindarrei. Andoaindarrak maila handia erakutsi zuten paleta larruz. Iradi fin aritu zen, ohikoa duen maila erakutsiz eta Poncek atzean lan handia egin zuen partida osoan. Hasiera batean, faboritoak Oreretakoak ziren, baina presioak urduritasunean ezkorki eragin

ziren. Lehen tantotik andoaindarrak aurkariak mendean hartu eta markagailuan gorantz egin zuten. Mateo Ponce aholkulariaren esanetan, "pala motzeko partidari argi zegoen sufrutuko genuela. Izan ere, maila handiko pilotariak dituzte. Baina aurre egiten jakin dugu, maila erakutsi dugu". Partida erdialdera arte norgehiagoka orekatua izan zen; baina, ondoren, aurkariak markagailuan gorantz egiten hasi ziren eta zazpi tantoko aldeagatik irabaztea lortu.



Buruntzaldea Igeriketa taldekoak Allurralde kiroldegiko igerilekuan. IKT

Igeriketa jardunaldia Allurralden

IGERIKETA Asteburuan GIF trofeoaren jardunaldia ospatu zen Allurralde kiroldegian. Fortuna KE, Hernani KE eta Buruntzaldea IKT taldeek parte hartu zuten; guztira, 8 gizonezko eta 18 emakumezko lehiatu ziren. Gainera, Izaro Audikana andoaindarrak 200 metroetan marka pertsonala gainditu zuen, lau estiloetan (2:47,61). Ez hori bakarrik, Mikel Esnal, Eneko Elizasu eta Izaro Audikana sailkatuak izan dira Euskal Herriko Udako txapelketetarako.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 3

ANDOAIN Hitzaldia

Eguzkik antolatuta, Zaldibar auzia hizpide Ahoztar Zelaieta idazlearekin.
19:00, Bastero.

ANDOAIN Dirulaguntzak

Kultur elkarteek urteko jarduera aurrera ateratzeko laguntza eskatzeko aukera izango dute. Argibideak Bastero Kulturgunean.
Azken eguna: Ekainak 4.

ANDOAIN Erakusketa

Espazio kuttunak, lau artisten eskutik: Iker Valle, Oaia Peruarena, Patxi Laskarai, Gonzalo Etxebarria.
Azken eguna: Ekainak 5.

ANDOAIN Erakusketa

Xabier Aranbururen artelanak ikusgai eta salgai. Urak zizelkatutako egurra.
Txitibar taberna.

ANDOAIN Euskara

AEK-k mintzataldeak osatu nahi ditu udan. Parte hartzea doakoa da. Informazio gehiago Andoaingo AEK euskaltegian: 943 59 17 04.
Azken eguna: Ekainak 11.

URNIETA Aurre-matrikulazioa

2021-2022. ikasturtean euskara ikasteko aurrematrikulazio-epea zabalik dagoela adierazi dute AEK euskaltegitik. urnieta@aek.eus / 662 338 747.
Azken eguna: Ekainak 25.

OSTIRALA 4

ANDOAIN Antzerkia

"Konpromisoa": Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Zuhaitz Gurrutxaga. Komedia Txalo konpainiaren eskutik.
19:00, Bastero.

URNIETA Matrikulazioa

Lourdes Iriondo musika eskolan matrikulazioa egiteko azken eguna.
Informazioa: Lekaio.

LARUNBATA 5

ANDOAIN Matrikulazioa

Galardi Udal haurtzaindegian matrikulazioa egiteko azken eguna.
Informazioa: 943 300 655.



Celia Nadal eta Javier Manzanera aktoreak. PERIGALLO

URNIETA Antzerkia

Bi bikotek etxea utzi behar dute: Pacok eta Emiliak 2011n, eta Mari Carmenek eta Emiliok 1961ean. Bi etxe-aldaketa, 50 urteko aldearekin. Perigallo teatro konpainiaren eskutik.
Ekainak 6, igandea. 19:00, Sarobe.

IGANDEA 6

URNIETA Antzerkia

Bi bikotek etxea utzi behar dute: Pacok eta Emiliak 2011n, eta Mari Carmenek eta Emiliok 1961ean. Bi etxe-aldaketa, berrogeita hamar urteko aldearekin. Perigallo teatro konpainiaren eskutik.
19:00, Sarobe.

ASTEAZKENA 9

URNIETA Tailerra

Arteterapiara hurbilketa, Zilegi Eskolaren bidez.
17:30-20:30, Urrietako AEK.

ANDOAIN Tailerra

Ibilgailu elektrikoei eta mugikortasun jasangarriko aukeren inguruan informatzeko on-line tailerra. Aurretik izena ematea beharrezkoa da, saioak aurrera egiteko ezinbestekoa baita aldeztu aurretik saiorako sarbidea ematea. Informazioa: argitu@gipuzkoa.eus.
18:00. Argitu.eus.

OSTEGUNA 10

ANDOAIN Tertulia

Emakume musulmanak: Erronkak eta lorpenak gure gizartean. Tertulia feminista, Berdintasun sailaren eskutik.
18:30, Bastero.

LARUNBATA 12

URNIETA Musika

Amak musika taldearen kontzertua, disko berria aurkezten: Alaitz Telletxea (Alaitz eta Maider), Maixa Lizarribar (Maixa eta Ixiar), Amaia Oreja (M-n Ezten) eta Kristina Solano (M-n Ezten).
19:00, Sarobe.

ASTEARTEA 15

ANDOAIN Tertulia

Genero-identitatea euskal dantzan. Oier Araolaza adituaren eskutik. Urki dantza taldeak antolatuta.
19:00, Bastero.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Cruella**

Estreinaldia:
Lar., 5. 19:00.
Ig., 6. 19:00.
Astel., 7. 19:00.
Ikuslearen eguna.

Axteris, edabe magikoaren...


Euskaraz:
Ig., 6. 12:00.

El año de la furia

Lar., 12. 19:00.
Ig., 13. 19:00.
Astel., 14. 19:00.



SINOPSIS

**Cruella**


Zuzendaria: Craig Gillespie. **Aktoreak:** Emma Stone, Emma Thompson, Joel Fry, Paul Walter Hauser, John McCrea. **Herrialdea:** AEB (2021). **Iraupena:** 134 min. **Generoa:** Thriller, komedia.

Cruella de Vil

Londoneko 70eko hamarkadan girotuta dago filma, punk rock musikak eztanda egin zuenean. Irizurra egiten duen gazte bati buruzko filma da. Estella izenekoa, gorabehera batzuk tarteko bere alderik

ilunena atera eta modu horretan Cruella iskanbilatsuan bilakatuko da. Kritikariak Emma Thompson eta Emma Stone aktoreen arteko fikziozko lehia hori nabarmendu dute. Oro har, kritika onak jaso ditu.

SINOPSIS

**Aquellos que desean mi muerte**

Zuzendaria: Alexandre Astier, Louis Clichy. **Herrialdea:** Frantzia (2018). **Gidoia:** Alexandre Astier, René Goscinny eta Albert Uderzoren komikian oinarrituta... **Generoa:** Marrazki bizidunak, abenturak. **Iraupena:** 86 minutu. **Hizkuntza:** Euskara.

Komikia zinemara eramanda

Helburu bikoitza lor dezakeela uste dute kritikariak. Batetik, betiko jarraitzaileen gogoko izatea.

Eta, bestetik, gazteagoengan komikian murgiltzeko aitzakia. Basteron euskaraz eskainiko dute.



Mikel Artola Gazteria zinegotzia, Maider Iriberrri eta Olatz Urretavizcaya Gazte Informazio Puntuko teknikaria. UDALA

Bidaiateka lehiaketan lehen saria Maider Iriberrrentzat

Instagram bidez gauzatu da lehiaketa eta Buruntzaldeko 16 urtetik gorako herritarrek hartu dute parte

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Gazte Informazio Puntuak Bidaiateka lehiaketa jarri zuen martxan apirilaren, herriko gazteen mugikortasuna sustatzeko. Lehiaketa horren bidez, azken urteotan bizitako esperientzia interesgarrien berri emateko aukera dute gazteek, bai eta sariak eskuratzeko beta ere. Instagram bidez gauzatu da lehiaketa eta Buruntzaldeko 16 urtetik gorako herritarrek hartu dute parte. Parte-hartzaileen artean, apirilaren 23ra bitarte "atsegin dut" gehien lorturiko hiru kideek lortu zuten azken fasera igarotzea: Ane Otaegik, Maider Iriberrrik eta Imanol Fernandezek, hain zuzen.

Bost minutu inguruko iraupena zuen bideo bat prestatu zuten ondoren hirurek, eta Gazte Informazio Puntuko Instagram kontuan lorturiko bistaratze eta

Hiru saridun lehiaketan

Honakoa izan da sailkapena:
1. Maider Iriberrri (300 euro).
2. Imanol Fernandez (200 euro).
3. Ane Otaegi (100 euro).

"atsegin dut" kopurua zein epai-mahaiaren puntuazioa kontuan hartuta Maider Iriberrri izan da lehiaketako irabazlea.

URTEOTAN BIZITAKO ESPERIENTZIA INTERESGARRIA KONTATZEKO GAZTE LEHIAKETA DA



"Urnietan dantzan" saioko argazkia, artxiboko irudian. UDALA

"Urnietan dantzan", larunbatean

Egape dantza taldeak hainbat saio iragarri ditu, larunbat honetarako. Euriarekin pilotalekuan egingo dute

Erredakzioa URNIETA

Ezohikoa izango bada ere, urteroko erronkari erantzun nahi izan diote. Hala, ekainaren 5ean, larunbatean, Urnietako zenbait txoko beteko dituzte musikaz eta dantzaz. Plazido Muxikan izango da lehen hitzordua (11:00), Lehen Hezkuntzako kideen es-

kutik. Gainerako saio guztiak 12:00tatik aurrera izango dira: batetik, San Joan plazan, dantza taldeko helduak zein beterranoak (13:00). Bestetik, Etxeberri plazan izango dira DBHko ikasleak, 12:00tan hasita. Azkenik, Zaldundegi plazan ariko dira DBH 3, 4 eta batxilergoko kideak.

Ipuin kontaketa

Helduentzako ipuin kontaketa saioa antolatu du Andoaingo Udal Liburutegiak. 19:00tan hasiko da, eta ikusleek Ixabe Agirresaroberen "Ezina, ekinez egina" ipuin kontaketa gozatu ahal izango dute. Ekainaren 8an izango da, asteartearekin, Basteron. Herri ipuin, istorio urbanoak, emakumeen presentzia... Hainbat istorio laburrez osatutako saioa da.

Musika saioak Saroben

Lourdes Iriondo musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako kontzertuak eskainiko dituzte, datorren astean. Ekainaren 7, 8, 9 eta 10ean izango dira emanaldiak, guztiak arratsaldeko 18:30ean hasita. Sarrera beharrezkoa da, emanaldia ikusi ahal izateko. Dagoeneko eskuragarri daude, Sarobeko bulegoetan.

ZORION AGURRAK



ZIZURKIL

Joxe Mari Ollakarizketa

Ekainaren 2an urteak bete zenituen. Zorionak eta urte askotarako! Otordu ear batekin ospatuko dugu! Muxuak.

Urte askoan!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

- www.aiurri.eus Zorion agurra atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **943 300 732**

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 / 665 719 827**

SALGAI

Lokal komertziala **salgai** Andoaingo Juan Bautista Erro kalean. 51 m², solairu bikoitza egiteko aukera. 61.000

euro. **687 851 740** Edurne.

EROSI

Andoain inguruan **lur sail** eder baten bila nabil. Cesar Sistiaga. **620 720 694**

MERKATU TXIKIA:

diseinua@aiurri.eus
619 163 537
Arantzibia 4-5, behea. ANDOAIN



- **Astero zozketa:** KM0 produktuez betetako otarra.
- **Aurreko 2 asteetako irabazleak:** Iraola, Arratibel, Aranburu.





Aiurri.eus, unean uneko albistegia



Eguraldia



Kirol-hitzorduen jarraipena



Egunean Behin



Koronabirusaren gakoak



Bertsozaletasuna



Kirol-albisteak



Bideo-sorta zabala



Argazki-bildumak



Agenda atala